

Balentrien alde ilunaz



Fermin Erbiti Zabalza
KAZETARIA

Osor futbol zalea ez izan arren, ni ere poztu egin nintzen Osasunaren balentriarekin. Ekaineko larunbat hartan, festaren eztanda ikaragarriaren lekuko isil eta arretatsu izan nintzen. Ilunetik aski izaten dugunez, festaren argiari besterik ez erreparatzea erabakia nuen, jendearen zoramenaren lekuko izatea ederra dela iritzita: karririk eta ostatuak leporaino, jendea dantzan, oihuka, saltoka...

Bestalde, gurea bezalako gizarte hain zatikatuan gutxitan gertatzen da abertzale, erregionalista eta sozialistak arrazoi berberetatik alaitzea. Eta bada, noski, kontent egoteko beste arrazoirik, Osasuna zalea izan ala ez: klubak guztiokin duen zorra aiseago kobratuko dugu lehen dibisioan bigarreanean baino.

Honaino, ederki dena. Kontua da herri zoramenaren aparra gora zihoan neurrian kontrako bidean hasi zitzaidala barneko bozkarioa, hura guztia gehiegi zelakoan: goizaldeko ongi etorri jendetsua, agintarien omenaldia, jokalariek heroiaren antzera karririk karririk eginiko ibilaldia, hedabideen arreta neurritz gainekoa... Zer nahi duzue esatea: hasierako helburua bazter batean utzita, iganderako festaren iluna nagusitzen ari zitzaion barneko bozkarioari.

Aldarte aldaketa arrazoitu nahian-edo, berriki irakurri eta apunteen koadernotxoan jasotako esaldia gogoratu nuen. Ismael Santos saskibaloi

jokalaria ospetsuarena da, elkarrizketa batetik hartua: "Kirol profesionalak -dio galiziarrek- funtsik gabeko automatik sortzen ditu. Zer irabazi, horixe balio duzu. Partida irabazten duen jaurtiketa egiten baduzu, heroia zara; huts egiten baduzu, berriz, kakati handiena. Dena azken emaitzaren arabera epaitzen da, eta hori bidegabea eta pobrea da".

Esaldia irakurtzen ari nintzela, irratia esataria hurrengo denboraldiko euskal derbiez ari zen: "Bost euskal talde lehen dibisioan, hoge derbi!". Hura entzun eta segituan telebistak horrelakotan eskaintzen dizkigun irudiak ikusi nituen: bi taldeetako zaleak nahasturik daude, Estafetan edo Fermin Calbetonen, nor bere elastiko eta lepokoarekin, zerbeza eskuetan, oihuka. Hoge aldiz denboraldian.

Eta ni, etor litekeenaz jakitun, Xabierko San Frantziskoren beso ustelgabeari erregutuz, behin eta berriro: "Arren, derbien aurreko erreportajeetan atera dezatela noizbait Juan Luis Zabalak *Txistu eta biok* liburuan deskribatzen duen futbol zale motaren ordezkaria: 'Ez nauzue harrapatuko Realaren elastikoa jantzita edo Realaren garaipean bat jauzika eta oihuka ospatzen. Aitortua baino isila da nire Realzaletasuna, espanturik gabea'".

Hoge euskal derbi: hoge aukera profil horretako zalderen bat elkarrizketatu eta derbien aitzineko erreportajeetan berritasunik eskaintzeko. ■

Azkena



Joanes Etxebarria
KAZETARIA

Gure bertso eskolako lagun batek miresmena die ditzolariei. Erranaldi labur eta errimatuetan, erritmo bizian, zirt eta zart, sekulakoak botatzen omen zituztelako. Labur eta on. ARGIAren proposamena aproposa zen horretarako, eta ahal bezainbeste baliatu dut, epe luzean artetik, laburki zerbait kontatzeko. Ahal bezala eta mamiari lehentasuna eman nahiz.

Baina autozentsura krudela da. ARGIA aldizkariak (ere) frogatzen baitu egunez egun isunak, polizia eta beste lege edo epaileen gainetik kazetaritza sendoa egin daitekeela. Baina hartu gai mingarri bat, pentsatu "nor naiz ni hori kontatzeko", edo "zer pentsatuko dute" eta ttutt, gaiez aldatu. Gisa horrez baztertu dut Ipar Euskal

Herriko elkargo bakarrari egin nahi nion kritika, ene alde matxista salatuz gogo, eta beste zenbait gai.

Leku ber-berean aste bat lehenago aritzen den Itxaro Bordari entzun ala irakurria diot egunero idazten duela, eta nahiz aitak hala egitea aholkatu, egunero ametsetan galtzen naiz, paper gainean hitzik etzan gabe. Hargatik segur aski, zutabe honen arduradunak pentsatu izan du behin baino gehiagotan ez zitzaizela garaiz jinen ene kolaborazioa. Beraz hona edo beste plaza libre batera itzultzeko edo seriostu beharko naiz, edo punkiango bilakatu, edo ondu beharko dut. Plazera izan da, eta plazera izanen da hemen berean irakurtzen segitzea, laster arte. ■